

# KROKODILOA

## Gidoia

177 hitz

Lurralde beroetan eta ibai ertzetan bizi da krokodiloa.


Animalia hau da dauden narrasti guztien artean handiena. Hamar metro neurtzera iritsi daiteke. Muskerraren aldean krokodiloak benetako erraldoia dirudi.

Azala, berriz, oso gogorra dauka. Askotan bala batek ere zulatu ezinekoa.

Bere ahoa ikaragarriaren bidez animalia handienak ere txikitzeko gai da.

Arraina da narrasti honi gehien atsegin zaiona.


Eta janariaz leporaino dagoenean, ur ertzera joan, lurrean luze-luze etzan eta gora zorrotz begira gelditzen da.



Inork ez diola erasoko ziurtatu nahi ote du?

Ezta pentsatu ere; hagin-garbitzailea noiz helduko zain dago, eta laster izango du hau bertan.

Bizkar gainera etorriko zaio txoria hasieran, eta pixkanaka-pixkanaka narrasti handiaren ahora hurbiltzen hasiko da, azkenean, batere beldurtu gabe, aho barrurantz sartu arte, habia batera sartuko balitz bezala.



Eta hortz-haginak garbitzeari ekingo dio, krokodiloari tartean gelditu zaizkion haragi hondarrak janez.

Garbiketa hau atsegin zaio krokodiloari, txoria barruan dagoen bitartean ahoa zabaldua edukitzen baitu. Honek bere zeregina bukatzen duenean, bizirik eta bakean irteten uzten dio, ondoren aho-sabaia jaitsi eta ahoa itxiz.

Elkarbizitza honi biek ateratzen diote zukua: krokodiloak bere hortz-haginak garbitzea lortzen du hagin-garbitzailea elikatzearen truke.

*2 Irakurgaiak liburutatik hartuta.*